



1

BALIO PROPOSAMENA

Hondakin organikoen metatzeak, denbora bat pasatzerakoan usain txarra, bakterioak eta intsektuak agertzea eragiten du. Horren ondorioz, gune eroso eta seguruak izan beharko lirakeenak, desatseginak eta deserosoak bihurtzen dira.

Metatze honek hainbat arazo sortu ditzake, bai birziklatze-faltagatik, bai kutsadurari eta higieneari dagokionez. Horregatik, “Hermi” zabor hermetikoa diseinatu dugu hondakin organikoak modu eroso batean biltzeko. Gure asmoa hondakin-pilaketak espazio itxietan eragindako usain txarra konpontzea, erosotasuna eskaintzea eta birziklapena sustatzea da. Horrez gain, merkatuan daudenak baino zabor-diseinu modernoagoa eskaintzen dugu, edozein gelatarako aproposa.

Gure produktuak junturretan oinarritutako sistema hermetiko batekin funtzionatzen du, presio bidez kanpoko usain txarrak isolatzen dituena. Gainera, horri esker, bezeroek zaborrez goraino dagoenean atera dezakete, poltsaren edukiera guztia aprobetxatuz, eta gutxiago kontsumituz. Etxebizitza eta pertsonen egokitutako sistema ergonomikoa eskaintzen dugu.

Zaborrontziaren egitura generala altzairu herdoilgaitzez egina dago. Ixte hermetikoaren sistema, aldiz, plastiko birziklatuz. Horrek, oro har, ontzi oso eraginkorra bihurtzen du bere egitekorako, eta,aldi berean, edozein espaziotara egokitzeko diseinu garbi eta estetikoa dauka. Estilo minimalista, geometriko eta berritzailea gure produktuaren adierazle dira. Horrela, ia denon gustuetara egokitzen da, edozein espaziotan egoteko pentsatua.